

Nafarkaria


• ostirala • 1998ko urriaren 2a

Gehigarri honetan

Bera • Arte garaikideko bortz artista gazteren erakusketa izanen da kultur etxean bihartik.

Nora Eneterreaga • «Bidasoako Jaialdiek harrera ona izan dute».

GR 220



• Oskar Montero

Iruñerria ezagutzeko aukera ederra

Iruñerri Inguruko Ibilbidea, edo GR 220 mendi-bidea, inauguratu berri dute. 117 kilometrotan hain hurbila eta horren ezezaguna den eskualdea ezagutzeko parada ematen du ibilbideak. Iruñerrikoa Nafarroan dauden ibili luzeko mendi-bideen artean bederatzigarrena da. Mendi Federaziokoek, eta mendizaleek orohar, espero dute besteen bidea ez jarraitzea, nahiko abandonaturik baitaude.

• Bera

Artista gazteen eskutik

Bortz artista gazteren lanak ikusgai daude bihartik Berako kultur etxean

Bihar hasi eta hurrengo asteko igandea bitarte artearen ikuspegi ugari ikusi ahal izanen dira Berako Kultur Etxean zabalduko den erakusketa. Pintura, argazkigintza, collagea, zaborrarekin egindako artelanak eta eskulturak paratuko dituzte bost gaztek.



Berako kultur etxean herriko margolariak eginiko lanen erakusketa ikusgai izan da berriki, eta bihar beste bat zabalduko dute. • JAGOBA MANTEROLA

BERAN, ETA ORO HAR HERRI TTIKIETAN, jendearentzat ez ohikoa den erakusketa izanen da bihartik hurrengo hilaren 11 bitarte Berako kultur etxean ikusi ahal izanen dena. Asteleheneetik ortziralerara 18:30etatik 20:00etara ikusi ahal izanen da erakusketa, eta asteburuetan 19:00etatik 21:00etara.

Lamixine Bat antzerki taldeak herrian erakusketa arloan dagoen hutsa betetzeko asmoarekin antolatu du erakusketa. «Normalean pinturak izan ohi dira ikusgai, baina betiko pintura. Hori ongi dago, baina horrezaz gain ere bertzelako arte espresioak ere badaudela erakutsi beharra dago», azaldu du Beatriz Lazkanotegik, Lamixine taldeko lehendakariak.

Okasiorako bortz gazte bildu dituzte, hiru beratarak, eta bertze

biak gipuzkoarrak, baina Berako herriarekin loturaren bat dutenak. Maria Irazoki eta Maite Elgorriaga beratarrek euren margoak paratuko dituzte zintzilik kultur etxeko erakustaretoan. Arte ederak ikasten ari da 21 urteko Maria Irazoki, eta Maite Elgorriaga, berriz, ikasketa horiek amaituta ditu, eta plastika irakasten du Labiaga Ikastolan. Bertzalde, Alaitz Matxiarenak argazkiak erakutsiko ditu, ikuspegi garaikide batetik ateratako argazkiak. Juanan Urkola tolosarrak collagea eta zaborrarekin egindako hainbat lan erakutsiko ditu. Udan Bertizko Turismo Partzuergoak Beran antolatutako Zabor-Art erakusketa bere lanak erakutsi zituen Urkolak, eta orain ere bere lanak ekarriko ditu Berara. Azkoitiko Txabi izanen da borzgarren kidea. Hau

ere Arte Ederretako ikaslea da, eta bere berezitasuna parafinarekin egindako eskulturak dira.

«Jendea erakusketak ikustera hurbiltzeko deia egiten diogu, eta bide batez bertako gazteei aukera bat eskaini nahi diegu. Hastapenetan dauden artistek aukera gutti izaten dute egiten dituzten lanak erakusgai paratzeko, eta guk huts hori bete nahi dugu», erran du Lazkanotegik. «Antzerki talde bat izanagatik, herriko kultur egoerak kezkatzen gaiñu. Ez da berez gure zeregina, baina kultur batzordean gaia plazaratu genuen. Beharrezkoa ikusten dugu erakusketa gehiago egitea, artista gazteei aukerak ematea, bide berriak zabaltzea... diru guttiarekin egin daitekeen kontua da».

Aurrera begira bertzelako egitasmorik badute, baina oraindik

ez dute zehaztu. Artista gazteek eskertu egiten dituzte horrelako egitasmoak. «Aukera gutti dugu gure lana erakusteko. Prest ote gauden ere ez dakigu, baina ilusioa egiten du zure lanak jendeak ikusi ahal izatea», diosku artistetako batek.

Halaber, antolatzaileek aniztasuna bilatu nahi izan dute lanean. Ezbairik gabe estilo ezberdinak lantzen dituzte. Egun egiten diren lanak paratu nahi izan dira erakusgai, baina estilo aldetik ezezik, baita teknika zein material aldetik. «Erakusketa berean argazkiak, pinturak, plastikoak, birziklatutako materialak... ikusi ahal izatea aberasgarria izanen da», erran dio Nafarkariari antolatzaleak.

→ Jon Abril

Igantzi

Asteburuan akituko dira herriko bestak

SAN MIGEL EN OHORETAN ospatzen diren beste akabera emanen zaie bihar. Asteleheneetik hasita, giro ederrean bizi dituzte igantziarrek herriko bestak, eta gaur eta bihar inguruko herrietako gazteak ere hurbilduko dira bestagunera.

Gaur haurrak izanen dira protagonistak: egun osoan zehar eurentzako jokoak izanen dituzte, eta 17:00etan berendua izanen dute. Arratsaldeko 18:00etatik aitzine- ra betizuak izanen dira herriko plazan, Larraiz txarangarekin. 20:30etan buruhandiak eta kankailuak karriketan barna ibiliko dira, eta gauerdetik aitzinera Izotz taldea ariko da plazan, ordu tikiak bitarte.

Bihar izanen dute azken besta eguna igantziarrek. Arratsalde, 5etatik aitzinera herri kirolen erakustaldia ikusi ahal izanen da. Proba konbinatuan Igantzi eta Arraizoko taldeak ariko dira nor baino nor. Igantziarrek ez dute ohiturarik txapelketetan eta erakustaldietan aritzeko, baina okasiorako prestatu egin dira. Proba konbinatuaren ondotik lasto jasotze erakustaldia izanen da. Gauerdetik aitzinera, berriz, Laiotz taldea ariko da, beste akabera emateko.

Sanmigel egunez, astear- tean, Irungo Atsegina akordeo orkestraren emanaldia izan zen. Egun berean, Jon Maia, Xabier Legarreta, Oihane Enbeita eta Estitxu Arozena bertsotan aritu ziren. Ortzegunean, berriz, herri bazkaria izan zen Lizaso eta Egañarekin. Aurtengo bestetan, hala ere, igantziar guztiek oroimenean izan dute uztailean hil zen Juanjo Txoperena alkatea.

→ Jon Abril

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Maria du izena. Bere senargaiak kanpoan da asteburu honetan, lan-bidaia; eta bera, gaur larunbata izaki, lagunekin atera da zerbait hartzera. Arratsa nahigabe luzatu da; hasieran kubata bat zena, dozena erdira ailegatu da dagoeneko. Betiko diskotekan akabatu dute eta han, mutil bat, Alberto, Mariarengana hurbildu da eta bla, bla, bla... Ez naiz gehiago luzatuko. Gauza da, Albertoren Audian daudela: Mariaren gurasoen pisu huts horietako batera doazi. Ohartzeko zetazko maindire

Zetazko maindireak

artean bukatu dute biek, Albertok bere pikoizko jertsea eta pintzazko galtza garestiak ongi tolestuta utzi ondotik. Mariaren arropa lurtean botata gelditu da, dena markakoa den arren (kubata gehitxo jantziak txukuntzen hasteko).

Hurrengo egunean, dena ahaztea erabaki dute, Maria erabat damutua dago, nahiz eta ez duen deus ere gogoratzen. Bere gurasoak, igande goiza izaki, mezan daude, igandero bezala, eta etxera bueltatzean, gaba Martaren etxean pasatu duela erran die.

Aste batzuk beranduago, are

damutuagoa dago Maria: haurdun dagoela ohartu da.

Ez dakit nola, baina Mariak amari bere zorigaitza kontatu dio. 18 urteko alaba haurdun! Alaba ezkongabea! Senargaiak zerikusirik ez, gainera!! Aitari erran diote. Hurrengo egunerako, arazoa konponduta du aitak, alabak abortatu du.

Mariak egindako guztia anekdota hutsa da, niregatik nahi duena egin dezala Mariak! Baina Mariak ederki daki errosarioa erreztatzen, eta bere gurasoek are hobekiago.

Etxarri
Aranatz

Gaur hasiko
dira Etxarriko
feriak

AURTENGOAN EGUN BAT LEHENAGO abiatuko dira Etxarriko feriak herriko tabernarien, udalaren eta gazte asanbladaren elkarlanaren ondorioz. Arratsaldeko 20:00etan auzatea eta potea izanen dira. Ordu berean, Kiñu musika taldeak herria girotuko du. Jendeak afaltzeko atsedena hartzen duen bitartean, kultur etxean, Mikelats dantza taldeak, Virginia Alviraren zuzendaritzapean, *Amaia edo euskaldunak VIII. mendean* antzezlan espektakulua eskeiniko du gaueko 10etan.

Bihar arlo desberdinetako erakusketak, auzatea eta Drindots musika taldea arduratuko dira herritarrak animatzeaz. Azken txanpara iritsiz, igandean, goizeko 10:30etan abiatuko da 13. Mendi Igoera. Lasterkako froga honek herritar ugari biltzen ditu herriko plazan. Haurrentzat ikuskizunen bat izanen da arratsaldean eta iluntzean, eta Mundiñano Anaiak trikitalariek giroa alaituko dute. Bestalde, egun osoan zehar, zizen erakusketa izanen da herriko plazan.

Egun hauek, Sakanako Senideak taldeak euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten exijitzeko erabiliko ditu baita. Bihar arratsaldean, sei orduko enkateladan partehartzeko deialdia luzatu diete herritarrei. Beraz, asteburu honetan ere, jai giroak eta presoek aldeko aldarrikapenak egingen dute.

→ Amaia Mundiñano

Lizarra • Antzerkia eta zinema uztartuz

Txalo Produccionesek azken lana taularatuko du gaur

Udazkenean goxo-goxo eta teilapean antzerki eta zine emanaldiak izanen dira Lizarra. Izan ere, gaur antzerki jardunaldiak hasten dira eta bihar, berri, zinema programazio berria.

«U dagoena eldu da erkien orrietara. Udagoen usaiña, arratsalde barne. Orri igartuak beera, geldiro eta bare. Zerua ta odeiak, urdin more, gorri. Erroiak artotzetan, baltz eta kraz-lari». Horrelaxe dio Bitoriano Gandiagak *Elorri* liburuan. Gure bazterretara ere udazkena ailegatu da. Euria astiro-astiro hasi da zelaiak blaitzen eta etxean bero-bero egoteko nahia piztu egiten da gure barnean egunotan. Dena den, karrikara irten eta teilapean, atseginez, ekitaldi ezberdinez gozatzeko aukera ere ez zaigu falta; izan ere, gaur jarriko da martxan Lizarran udazkeneko programazio kulturala.

Gaur, iluntzeko zortzietan, Txalo Producciones antzerki taldeak bere azken obra taularatuko du Julian Romano Musika Eskolan. *La Ratona* izenburupean, Donostiako taldeak Agatha Christie idazlearen eleberria eramanen du tranpaldo gainera. Antzezlan hau 1952. urtean tau-



Cinefilos Anonimos taldeko kideek Julian Romano musika eskolako aretoan filmak pantailaratuko dituzte.

• C.A.

laratu zen estreineko Londresen eta geroztik, zortzi milioi pertsona inguruk ikusi dute. Orain, Txalo Producciones taldeak formula berri bat erabiliz -bidaia baten zozketa egiten da obraren amaieran-, herriz herri burutzen ari da obra. Bertan, hilketa bat izanen da, neguko gau hotz batean, eta publikoak hiltzailea zein izan den asmatzen saiatuko dira. Asmatzaileen artean Londresen astebeterako bidaia zozketatuko da.

Antzerki jardunaldiek hilaren bederatzian jarraituko dute. Egun horretan Jose Mari Asin aktore nafarrak *Misterio Bifo* antzezlan taularatuko du, Ignacio Aranazen zuzendaritzapean. *Misterio Bifo* Dario fo antzerkigileak duela 30 urte idatzitako lana da. Bertan, Erdi aroko testuez baliatuz, garai hartako koblakari lanak biltzen dira. Egun honetan bertan, arratseko

5.30etan, umeentzako antzerkia egonen da Foruen enparantzan. Ten Pinpilinpaua taldeak *Sekula guztietarako bideak* lana antzeztuko du euskaraz.

Antzerkiaren azkeneko zita, hilaren 15ean izanen da. Yerbuena taldeak *Emergencia* antzeztuko du. Bertan, Inmaculada Gurra, Pablo Sanchez, Patxi Larrea eta Montse Zabalza arituko dira, Alex Ruizzen zuzendaritzapean.

Bertzetik, zinema programazio berria hasten da Lizarran, Cinefilos Anonimos taldearen eskutik. Asteburuan *El coleccionista de amantes* pelikula ikusi ahal izanen da, larunbatean 20:00etan eta 20:30etan, eta igandean 20:00etan. Laster *El hombre de la mascara de hierro* eta *Amistad* filmak pantailaratuko dira.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Eduene Elizondo

Saio berriak Ttipi-ttapa Telebistan

Ttipi-ttapa Telebistaren denboraldi berria aipatzen du izen bereko aldizkariak bere azken zenbakian, irailaren 14az geroztik, abian baitira Ttipi-ttapa Telebistako saio berriak:

«Aurpegi berriak ikusten ahal dira dagoeneko Ttipi-ttapa Telebistako programazioan, eta etorkizunean are gehiago ikusiko ditugu, ez egin dudarik horretaz. Nerea Alzuri, Aitor Arozena, Felipe Saraguet eta Jon Abrilek lehendabiziko aldiz zanpatu dute telebistako plato bat, nahiz eta azken honek kamaren aitzinean esperientzia pixar bat bazuen lehena gotik. Estitxu Fernandez informatiboetako

aurkezlearekin batera, horietxe izanen dira gauero-gauero gure telebistan topatuko dituzuen aurpegiak».

Ttipi-ttapa-k telebistaren mundua ezagutzeko aukera eman nahi die eskualdeko biztanleei: «Hastapenetik, gure herri telebistaren asmoetako bat izandu da eskualdeko jendeari telebistaren mundua ezagutzeko aukera ematea. Momentu honetan gaude, inoiz baino gehiago, laguntza horren beharrean. Laguntza ekonomikoa, batetik, telebistaren proiektua egonkortu eta aitzinera atera dadin, baina baita jendearen partehartze zuzena ere.

Gisa honetan, zenbait bolondres telebistan praktikak egitera animatu dira dagoeneko».

Ttipi-ttapa-ko artikuluak, bestalde, Euskarazko Herri Telebisten Federazioa aipatzen du, elkarte horretako kide baita Ttipi-ttapa Telebista: «Gipuzkoako Oarso Telebistak eta Ttipi-Ttapa Telebistak martxan jarri dute berriki Euskarazko Herri Telebisten Federazioa. Abiatu den bidetik elkarlana gauzatzen hasia da momentuz bi telebista hauen artean, eta etorkizunari begira, gonbitea luzatuko zaie beste hainbat herri telebistari, eta sortze proiektuan dauden proiektu berriei».



ur dai
aren
mintzoa

Patxi Larraburu

Hongkonitaren Bitxua

Ordu erdiro esnatzen zen Bitxu bat zegoen nire ordenagailuan. Hong-Kong-etik heldutako ameba hau esnatu eta, nik jakin gabe, ea lurralde informatiko berri-rik ote zegoen begiratzen zuen, beste diska gogor bat edo dis-kete bat, eta aurkituz gero bere burua kopiatu eta hara bidaltzen zuen bere kopia zehatza; horrela, gutxi gutxinaka, bitxua mundutik ibili da informatikaren itxaso mugatuan. Bitxu lasaia, kaltegabekoa eta ikustezina zen. Aldizkari batengatik jakin nuen hortik bazebilela, eta ematen zituzten azalpenei esker aurkitu eta ezabatu dut, badaezpada ere, eta tamalez, Bitxu gaxua. Dagoeneko beheruntza egin du munduan bere presentziak. Informatikaren egongela zabalean argiak piztu dituzte eta Bitxua han, izkina batean, gorderik zegoela seinalatu dute; orain, segurasko, galtzeko bidean egongo da. Atzera egingo du kolonizatutako lurralde zabaletan desargertu arte. Gaxua. Ilunpean bizi zen, ez zuen kalte egiteko inongo asmorik, bere ardura bakar-kar, bakteriar burugogortasunaz, ugaltzea zen... eta nik... nik... hil egin dut. Orain damutzen naiz. Errua nirea da noski. Edozein txotxolok bere jakinduria goraitzeko idatzitako txostentxua irakurri eta itsu itsuan kasu egin eta makiltxo sartu dut zulotxoan, piztitxo xaxatuz, eta, argira erakarri orduko, zas, hil egin dut. Besterik gabe. Bizirik zegoelako. Barka nazazu hongkonita. Orain ohartzen naiz kuriositate sano batekin sortu zenuela Bitxua. Kristoren birus gaiztoa sortzeko ahalmena izan da ere bakteriar pakezalea sortu zenuen. Barkamena eskatzen dizut, zure sormenari bidea moztu baitiot. Ilargian errebotea lortu zuenaren oroimena ekarri didazu gogora. Hark, zuk bezala, gauza guztiz inproduktibo batean lan egin zuen. Bere etxean zuen emisore txikiarekin ilargira uhin Hertziario batzuk bidaltzen zituen, errebote baten bila. Mila aldiz. Azkenean, gau batean, aurretik bidalitako hotsa aparatuan entzun ahal izan zuen. Seinale ilargian errebotea lortua zuela: bere ahotsak ilargian jo eta, espazioan desagertu ordez, bueltako bidea egina zuela. Jakintza jakintzagatik edo horrelako zer edo zer omen da hori. Nik, aldiz, ilargia apartatu dizut hongkonita, eta barkamena eskatzen dizut.

Iruñerriko inguruak ezaguzeko parada

Iruñerria inguratzen duten mendiak zeharkatzen dituen 117 kilometroko GR 220 mendi-bidea inauguratu berri dute.

Joan den larunbatean ireki zuten, Ezkaba mendian, Iruñerriko mendiak herritarregana hurbildu nahi dituen ibilbide bat. Nafarroan dauden ibili luzeko mendi-bideen artean bederatzigarrena da. Mendi Federaziokoek, eta mendizaleek oro har, espero dute besteen bidea ez jarraitzea, nahiko abandonaturik baitaude.

→ Asier Azpilikueta

GR220 MENDI-BIDEAREN INAUGURAZIOA
Federación Vasco-Navarra de Alpinismoren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldietako bat da. Inaugurazio ekitaldian, Ezkaba menditortorean ibilbide honek dituen hamabi gutunontzietako bat paratu zuten. Hurrengo asteburuetan, azaroa bukatu arte, beste hamabi gutunontziak jarriko dituzte banan-banan. Bihar, Erreniega gainekoa estalgabetuko du Zizurko Udalak.

Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundea (horixe baitu izen osoa) Iruñetik ikusten diren mendien gozamen eta ezaguera hiritarrei errazago egiten saiatu da. «Hiritarra mendira hurbildu nahi izan dugu», erran du mendi federazioko lehendakari Juan Mari Feliuk. Kirol arina eginez eta familiarekin naturaz gozatu nahi duten guztiak aproposa da GR 220 ibilbidea. Gainera, paisaien eta ezaugarri geoklimatikoan aniztasunak naturaren benetako ikasgela bilakatzen du ibilbidea haurrendako. Iruñerriko mendietan barrenako bidaia honetan elkartu egiten dira harizti-pagadi atlantikoak eta Mediterraneo kutsuko arlandiak, baita gari eta garagar alorrak ere. Iruñerria osatzen duten hiri eta herriak ere bisitatzen ahaliko dira, beren ondare arkitektoniko, historiko eta artistikoa barne.

Iruñerria, hurbila izanagatik, ezezaguna dute bertan bizi direnek. «Gauza bixia da urte askota-

ko mendizaleei gertatu izan zaiguna», adierazi du Feliuk. «Izan ere, gure mendiek, gure paisalek harritu egin gaituzte. Urte anitz dira mendi hauek joateari utzi geniola, bisitatzen dugun lekurik hurbilena autoa hartu eta 50 kilometrora dagoelako».

Federazioaren eta Oberena, Aitonak, Gaztaroa eta Lagunak mendi taldeen lana izan da ibilbidea. Nafarroako Aurrezki Kutxak eta Nafarroako Gobernuak (Ingurugiro eta Kirol departamentuen bidez) dirua jarri dute. Gainera, gutunontziak babestu dituzten udalek ere beren prezioa ordaindu dute (35.000 pezeta, 1.400 libera). Seinalazio horizontala paratu dute jadanik eta heldu den urtean bertikala jarriko dute. Ondoren, aisialdirako guneak eraikiko dituzte bidean zehar.

Ibilbideak ez du kirol aldetik gaitasun berezirik eskatzen. 117 kilometroko ibilbide hau biribila da eta bost etapatan banatu dute: Egillor-Berriogiti (29 km), Berriogiti-Uharte (14 km), Uharte-Berriain (30 km), Berriain-Belaskoain (20 km) eta Belaskoain-Egillor (19 km). Etapa bakoitza hiri garaiak erraz erabiltzeko lekuren batera heldzen da.

Iruñerriko ibilbidea ibili luzekoa da, 50 kilometro baino gehiago dituelako. Nafarroan badaude ibili motzekoak eta lokalak ere. Feliuren ustez, arraz abandonaturik daude gehienak, eta zeozer



egin beharko litzateke bideak lehengoratzeko. Ingurugiro Departamentuko kontseilari Yolanda Barcinak NAFARKARIARI erran zionez, ez dago Nafarroako bideak oso-osorik hartzen dituen planik eta ez dute egitea pentsatu ere. «Jabe anitz dute mendiek, pribatuak izan zein publikoak izan, eta elkarlanean ari behar dugu. Izan ere, departamentuak ez du inposizioa gustuko, kolaborazioa baizik».

Badago laugarren bide mota bat ere: hiri-bidea. Iruñean horrelako bat ezarriko dute heldu den urtean. Bideak Iruñeko Erdi Aroko zazpi zubiak batuko ditu Burlatako intxustitik Miluzeke zubiaino. Ibai bazterretik abiatuko da eta gero goi-lautadako ertzetik itzuliko da Iruñeko berdeguneak zeharkatuz. Aranzadin ere sartuko da, non Nafarroako lehen rokodromoa eraiki nahi duten, betiere 75. urteurrena gogoan.

GR 220 ibilbidearen abiapuntutzat Iruñea ondoko Ezkaba mendia hartu dute mendizaleek dako toki enblematiko a delako.
• Oskar Montero



■ Oso garestia da txartela?

Espainiako Estatuan eta Pirinioetan barrena mugitzeko fitxa 7.900 pezetan dago gaur egun (316 libera). Ez da asko, baina, hala eta guztiz ere, prezioak jaisteko ahaleginetan ari gara. Izan ere, jendea kexu da prezioak direla eta. Zerbait hitzarmen interesgarri egin ditugu prezioak jaisteko. Oinarritzko

fitxa bat eginek gehigarriak solik ordaintzeko aukera emanen dugu mendizaleak nahi duenaren arabera (eskia, barrankismoa, mendiko bizikleta...). Denon gustuko izan litekeen menu zabal bat eskaintzen saiatzen ari gara, baina ez da oso erraza.

Eskia. Jendeak paso egiten du. Eskite federatu txartela izateko abailak dituela. Noiz ohartu dira? Mendi aterpe batera duden eta turista bezala duden behar dutenean (hala bi eta gehiago). Istripu aserare eskaintzen du txartel bat.

ikusten dugu, eta horrek kezkatzen gaitu. Gida asko daude, ekipo onak, eta sarbideak geroz eta errazagoak dira. Horregatik jendea, nahi gabe eta ohartu gabe, izugarriko arazoetan sartzen da. Egurdiko ordu batean hel daiteke pertsona bat San Martin gainera (1.700 metro) eta Añamendi hurbil dagoenez hara joan daiteke. Hiru ordu geroago han izanen da, jakin gabe ordu horietan ekaiz itzelak sortzen direla, eta gaitzek arrisku handia dagoela. Jende mota horrengana allegatu nahi dugu, eta urteurrenoko ekitaldiz baliatuko gara horretarako.

■ Zer dela eta ez dira federatzen?

Egoera geldian gaude. Urteak dira 50 mendi talde mugitzen direla Nafarroan eta 3.000 mendizale federaturik daudela. Oso kezkatutik gaude mendizaleetara gora ari delako etengabe eta geroz eta gehiago direlako istripuak, galarak, kontrolik eza. Mendi erabiltzen dutenen % 7 edo 8 kontrolatzen ditugula

ak lehengoratzten ez diren artean. Izan ere, irakurleen kexa anitz jaso dituzte. Sekulako astindua da guretako.

■ Zer dute, bada?

Ez dira zaintzen. Ongi dago horrelako orogarrizko ekitaldiak egitea mendia jendeari hurbiltzeko. Argazki asko, domina asko, baina gero dator guretako arraz garrantzitsua den kontu bat, bidearen zaintzea. Onartezina da kanpoko jendea guregana etortzea erraz dena abandonaturik dagoela edota, okerrago dena, galdutako egin dela. Dirulaguntza ttipi baten truke mendi federazioak

MENDIZALEETASUNA GORA ARI DA etengabe, geroz eta jende gehiago gozatzeko mendiaz. Federatu txartelen kopurua ez da igo, ordea. Ahalik eta mendizale gehien kontrolatzea dute helburu mendi federaziokoek.

■ Nola daude Nafarroako mendibideak?

Oso gaizki. Arraz atsekabeturik gaude. Nahiz eta hemengo mendibidei buruzko topogidak agortu egin diren, duela hamabost egun Nafarroako mendibideez arduratzen den argitaleak jakinarazi zigun ez zuela gida gehiago karrikaratu bide-

NAFARROAKO IBILI LUZEKO MENDIBIDEAK

GR 1. Mendibide historikoa.
• Anpuriastik (Girona)
Finisterraino (Pontevedra)
• 149 kilometro Nafarroan
• Mendi oinetatik igarotzen da eta izaera turistiko-kulturala du.

GR 9. Probitzietako Errege-abelbidea edo Zezenen abelbidea.
• Iruñerriko Gipuzkoara
• 56 kilometro Nafarroan
• Xulapain, Imotz, Basaburua eta Larraungo ballaretatik abiatzen da

GR 11. Pirinioetako mendi-bidea.
• Mediterraneo eta Kantauri itsasoak batzen ditu Pirinioak zeharkatuz
• 181 kilometro Nafarroan

GR 12. Euskal Herriko mendi-bidea.
• Isurialdeen banalerotik Hiru Errege Mahaia mendia arte
• 192 kilometro Nafarroan
• Lehenbizikoa eta abandonatuena, lehengoratzeko asmoa dute


GR 13. Erronkariko abelbidea.
• Erronkaritik Bardeetara
• 141 kilometro
• Leireko monasteriotik eta Xabierko gaztelutik igarotzen da

GR 20. Aralariko bira.
• Lekunberri hasi eta bukatu
• 84 kilometro Nafarroan eta 45 Gipuzkoan

GR 21. Bide inazianoa.
• Xabierko Loiolara
• Nafarroan 108 kilometro

GR 65 edo GR E-3. Donejakue bidea.
• Europa mailako bidea
• Nafarroan 170 kilometro
• Egoera onean mantentzen da

GR 220. Iruñerri Inguruko ibilbidea.
• Iruñea inguruko mendietan zehar
• 117 kilometro
• Inauguratu duten azkena da



J. APEZTEGIA

Federacion Vasco-Navarraren 75. urtemuga

Euskal mendizaleetara aurreko mendeko azken urteetan sortu zen. XX. mendearen hasieran bultzada handia eman zion mendigoizale mugimenduak, EAJren ingurukoak. Taldeak sortzen joan ziren, batzuk EAJri lotuak —Nafarroako Euzkotarra kasu—, eta beste batzuk inongo harremanik ez zutenak. 1924ko maiatzaren 18an hegoaldeko milaka mendizale bildu ziren Elgetako mendizaleen plazan Federación Vasco-Navarra de Alpinismo sortzeko. II. Errepublikaren garaian izena aldatu zioten eta Alpinismoko Euskal Federazioa jarri, betiere Nafarroa barnean zegoela. Horrela jarraitu zuen diktadura garaian ere. 1986an, ordea, zatiketa etorri zen, Nafarroako kirolaren inguruko eskumenak erdietsi zituelako. Juan Mari Feliuk dienez, zatiketa traumatikoa izan zen. «Lehendakartzan egoteko zoritxarra egokitu zitzaidan. Trauma bat izan zen, urte anitz baitzen elkarrekin geundela. Zurrumurruak ekarri zituen eta oraindik gaingiditu ez den egoera bat. Legeak hala dioelako

eta egun nafarren erabakia dena delakoa delako, administrazio ezberdinetan gaude banandurik, baina hainbat ekimen egiten ditugu elkarrekin».

Duela 74 urte sorturiko federazioaren 75. urteurrena ospatzen hasi dira jadanik. Urte honetan zehar egiten dituzten ekimen tipiez landara, badago ekitaldi nagusi bat, Elgetan ospatuko dena heldu den urteko maiatzaren 23an. Han euskal mendizale guztiak biltzea espero dute. Egitaraua finkaturik ez dagoen arren, badago ekitaldia berotzen hasteko ekimen bat, Nafarroako federazioak bultzatua hain zuzen ere. Eguberri bezperan, Mendigoizaleen Eguna ospatuko da, urtero legez, Aralariko San Migelen. Hantxe bost makila banatuko dira (Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldea), eta urtarilaren erdialdera-edo mendirik mendi mugituko dituzte bost makila horiek Euskal Herriko mendi taldeek, harik eta maiatzaren Elgetan denak elkartu arte.

Andima Ibiñagabeitiaz asimasiak I: bizitz ezpalak

36.eko gerrateak Portugalen harrapatu izatea eta Francoren agintaldian ihes egin ahal izatea ez zen makala guretzat, horri esker batik-bat Elantxobeko Andima Ibiñagabeitia euskal letretarako aisa geureganatu ahal izan genuelako.



BIZKAITAR PETO-PETOA
genuen Andima-Sabin xalao; aita, Galo Ibiñagabeitia Beobide, elantxobetarra zuen, eta ama ere, Eufemia Idoiaga Aldamiz-Etxebarria, Ibarrangelukoa. Horrela beraz, Andima Elantxoben jaio zen 1906.eko urtarrilaren 26an, eta izenak berak aski argi salatzen digunez, Galoren pentsamoldea lagun hurkoa zuen Arana-Goirirengandik arras gertu zegoen; Elantxobeko maisua izanik, gartzela ezagutu beharra izan zuen Iberoko Ebangelistaren *Ami Vasco* banatzeagatik.

Andimari harzara atxekituz, oraino haurra zela, eta lehen ikasketak, ausaz aita-ren akuilatzapean, sorterrian eginik, Tuterako josulagunen etxera joan zen batxilergoa egitera, non bulta laburrez (1918-1919) Orixe bera maisu egokitu baitzitzaion. Handik, Josulaguna izan nahi zuela, Loiolara jo zuen 1921.ean, josulagunen ikas-bidatzian zegozkion historia eta giza ikasketak burutzera. Hantxe zin eginen zituen boto txikiak 1923.ean, eta hantxe ere grinatuko zitzaion osoki euskal gauzekiko gogo beste hainbat josulagunai euskaldunekin batera, oroz gain Zaitegi-ekin, urte batzuk lehentxeago aita urtebetez gartzelara eraman zuen *Ami Vasco* liburua bera irakurtzeko aukera Apalategi aitak eskeini zientetik batik-bat. Loiolan ere, euskarari aitzilantzean behin arnas zitekeen giroa izanagatik, ez ziren gutxi jaso abirazai eragingarriak.


Estefania aitak literaturaren berri eman zien zabal eta oparo: «Estefania-Zabalañatar Joseba Mirena aba zan gure elerti irakaslea. Ez genezakean ukan irakasle pin, zintzo, zorrotz eta iakitinagorik sail ortan (...) Ez zun iñungo literaturarik baztertzen, eta berak erakutsi zizkigun katalandar literaturaren ondasunak, baita euskal-literaturarenak ere». Loiolakoan ere, euskal akademia sortu zen, eta horri aurkezturikoa da Andimaren ezagutzen dugun lehenbiziko lana, 1923.eko *Lore ederrenak* olerkia alegia.

Loiolatik jalgirik kurrutu beharreko bideak Oñara eraman zuen, metafisika, filosofia eta matematika ikasle, eta handik ere, teologia nahiz zuzenbide kanoniko ikasketak burutzeko xedez, Belgikako Marneffera hurbildu zen, tartean Colombiako Bucaramangan denbora bat emanda. Alabaina, 1935/36eko ikasturte bukaera aldean utzi zuen lagundia, seguroenik ere, obediencia botoa betetzeko zituen zailtasunengatik, eta bereziki euskara kontuak zirenez bezanbatean.

Belgikatik Euskalerriratzearan Galdakaoko lehergai entrepresa batean sartu zen bullegari, Chalbaudtarren Unión de Explosivos entresan alegia. 36.eko gerratea baino apur bat lehentxeago baina, nagusiek Portugalgo Trafarian ireki berri zituzten bi lantegien kudeaketaz ardura zedin borroka-tokitik aldendu zuten zuhur zazpi bat urtez, harik eta zeregin berberaz Madrila

inguratu arte, nondik guztiz sordesian nazkatuta, Bilbora itzuli zitzaigun, ez oroz-bakoz orde, egoera politikoa zela eta, Parisa joan baitzen 1947.ean.

Parisen zazpi urte eman zituen, Mirande eta Peillenen lagun-giroan, ugari eta eman-kor; ordukoak dira, bada, Andimaren lehenbiziko argitarapenak, aurretiago josulagunen *Jesusen Biotzaren Deya*-n eginikoez gain: *Alderdi*, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, *Egan*, *Euzko Deya*, *Euzko Gaztedi*, *Euzko Gogoa*, *Gernika*, *Irrintzi*, *Oleriti*, etabarretan, betiere euskara hutsez. Parisko egonaldia, aitzitik, eten behar, eta Zaitegi ikaskide ohi zaharrak *Euzko Gogoa* aldizkarian lan egin zezan luzatu dei salbatzaileari muzin egin gabe, Guatemalara joko zigun Andimak 1954.eko hasieran. Parisen, damuz, ezer gutxi egin zezakeen, Miranderi aitortu zion gisara: «Gure atzerrialdeko egokera geroago eta okertzenago ari da. Ez da iñundik argi-xintarik ageri gure etorkizuna argitzeko. Utzi bear dut Paris puta-tzar min ematen badit ere». 1956.ean Zaitegik Euskal Herrira egin zuenean, Andimak Caracasen bilatu zuen abegia, sendikoen artean, hantxe ere euskara tartean, eta bertako euskal etxean euskara-irakasle arituta, bertan zendu zitzaigun 1967.eko azaroaren 2an. Hiru urte beranduago Caracasko Euskera Lagunen Elkartekoek *Andima Ibiñagabeitia Saria* sortu zuten bere omenez.



-OT, -KOT, -POT atzizki sorginak

BADIRUDI, GASKOINETIK zabalduak izan direla, batik bat, baina nabari dute halako kutsu bat, filologia alderdi hutsetik azaltzen samurra ez dena. Nere gogoan behintzat, bukaerako -OT hori aditzeak hutsak, halako sorgin aire bat pizten du. Baliteke neure irudipen hutsa izatea, baina, beren testuinguruan begiratu eta, kutsu berbera sumatzen diet. Haratx xirta batzuk, nere usteari eusteko:

Andres Iñigok Iturenen jasotako etxelena: *Xakillotena*, *zakilot* (zakil + ot) goitzenetik sortua, «puesto que ya en 1571 aparece como tal en *Joannes de apeztegui alias chakillot de auritz*». Aspaldiko gaitzizen honek, *Zakillixut famatua ekarri dit gogora, edo zakillipot eta antzeko esakerak. Ez dabilkio uruti, Lettzan, Miel Joxepe deabruari buruz, Urbitako Mikela Labayenen esandakoa: «Errosarioa erreztzekoan, letanitara allatzen zienen, orapronobis esan bearren, akillipot, akillipot esaten emen tzun».*

J. M. Satrustegik jasoak ditu antzekoak, Barrankan eta Luzaiden esanera kabalistiko gisan: *Lumen rebelacionem kentzionem Pot*, *Erregelan Pot*, *Erre-bisionian Pot*. Sorgin auzietan ere, maiz ageri da, *aker beltzari ipurdian (uzkian) pot* emate kontua, kristau xuriekiko ofentsa zikin moduan. Jakitekoa litzake hitz onomatopeiko honen segizio historikoa: *pot, pot egin, poto, pototoa...*

Horri lotua, ihautetako *Ziripot* ezaguna genuke, ageri denez, *Zipotero*, *Zipotegato* eta gisakoen guraso izana. Aspaldi haundiko *Ziripot* zarpail honek, orohar deabru, sorgin, koko, bufoi, juglare, edo momo irrigarri/izugarri/errukarria gorpuzten baitu.

Honekin uztartzen du, Urdiainen jasotako pertsonaia, J.M. Satrustegik: «tipo destartado, que cayendo y retorciéndose como un guñapo animaba los intermedios. Nadie aclara su

procedencia, si bien se relaciona de algún modo con el tema religioso. Hay quien cree se trataba de ángeles retirados de alguna iglesia. El más conocido se llamaba Alikote. (...) Lo curioso es que al mismo tiempo ere el neófito de muchos carnavales». Eta *Alikot(e)* honek, *Anikot(e)* izeneko euskal joko sorgina dakar gogora.

Txomin Peillenen zubererako txipigarriez ari delarik hala dio: «Maulen gaskoinak dira nagusi, eta -ET eta -OT txipigarriak hartzen dituzte: *Gassiot, Guillemot...* Mikel Belaskok badaki luza litekela zerrenda: *Gartxot, Amigot, Pierrot, (Santxot, Joangot, agot deitura eufonikoak)* guziak *Johanot de Jaso* hura bezala, *naturalem patrie de bascos o ultra portum de roncesvalibus*. Baztango sorginek ere, *Joanikot* deitzen omen zioten Kristori maxika.

Jimenezen elaberriko *Baleen Barbaro* gozotik, honatx beste argiprintza: «Askok, batera esaten dituzte *higanot* eta amaiera bereko agot, isekaz eta destelnaz. Frantzia aldean eta Nafarroan sortuak diren Calvinoza-lei irizten zaie horrela. Oraindio gogoan dut frantseseko leloa: *je nem puan se nom ki son fini en os, Gots, Cagots, Austrigots, Bisigots e Higanots*». Horratx nere OT sorginen aztarnak.

Euskal gogoan, inon sartu beharko banitu, *Marginalia* ilun batean sartuko nituzke atzizki horiek; batez ere, garai bateko erlijiozeria guzien iturri izan zen «patrie de bascos» hartatik Bidasoaz honutz nabarmendutakoen estigmatzatz.

Edo alderantziz, esaterako, Txomin Peillenenztat: «El castellano es en tal grado la expresión de la violencia que, los suletinos tienen un verbo para enfurecerse, *españuítzen*, y para el iracundo el calificativo de *españu-lót* que yo llevé muchos años». Eta Garazi aldean *munterot (munttiot)* deitu izan zaio deabruari, larremugen zaindari (montero español) gaizto haiek utzitako oroitza, agian.

Ziria

• Motxorrosolo •

Prebentzioa

ERAKARGARRIA DA OSO. PREBENTZIO HITZAK BERE BIDEA EGIN DU milaurretekoaren akaberan. Hitzak diot; izan ere edukinaz, egiazko prebentzioak dakarren onuraz ezer gutxi dakigu. Politikan ere dena aurreikusten da, emaitzak bestelakoak direnean horien eragin mediatikoa da sahiesten dena. Komikigai bihurtu den kontseilariak kanpaina bat egiteko asmoa dauka: sei milioi, besterik ez. Prebentzio lanetan aurreztu zuena. Natura esker txarrekoa da gero.

Nora Eneterreaga

© Bertizko Partzuergoko kudeatzailea

«Jaialdiek harrera ona izan dute»

Aurten, Nafarroako Jaialdiak iparraldera ailegatzen ez zirela ikusirik, lehenbiziko aldiz Bidasoako Jaialdiak antolatzea otu zitzaien Bertizko Turismo Partzuergokoei. Halaxe egin dute, eta uda osoan kultur egitarau zabala eskaini diete bertakoei nahiz kanpotik etorririkoei.



MIKEL SAIZ

LEHEN ALDIA ZENEZ, AURREIKUSPENAK ez dira erabat bete. Ekitaldi bakoitzeko mila lagun biltzea espero zuten, eta gehienez ere 700 joaten ziren. Hala ere, ekimenarekin aitzina jarraituko dute.

■ Noiz sortu zen Bidasoako Jaialdiak egiteko asmoa?

Idea administrazio kontseiluan zebilen aspalditik, baina ez zen gauzatzen beti zain geundelako Nafarroako Jaialdiekin zer gertatzen zen ikusteko. Aurten, ideia aurrera eraman behar zela ikusi dugu, berriro ere Nafarroako Jaialdiak ez zirelako honat etortzen. Uste dugu eskualde honetan kultur arloa lantzea beharrezkoa dela. Normalean jendea etortzen da paisaia eta natura dela-eta, erakargarria baita. Baina hori ere gastatu egiten da, behin ikusiz gero nahikoa gerta daiteke. Beste zeozer behar du jendeak.

■ Zein helbururakin sortu ziren?

Inguru hau pixka bat dinamizatzea, kulturen zeozer egitea zen gure nahia. Pentsatzen dugulako gutti egiten dela arlo horretan. Beste aldetik, ikusten genuen gauza on eta polit samarra eginez gero lortzen ahal genuela hemendik urte batzuetara jendeak gure eskualdea ezagutzea, ez bakarrik natura aldetik duen erakarritasunagatik, baizik eta kultura aldetik hau ere edukitzeagatik.

■ Bete dira helburu horiek?

Baietz uste dugu. Lehenbiziko aldiz egin dugu horrelako zer-bait, eta egia erran aurrekontuak egiten dituzunean gastuena zaila da egiten, baina zailago oraindik

diru sarrerena. Alde horretatik, behatzak hartu ditugu. Uste genuen oso erraza zela mila lagun biltzea edozein kontzertutan, eta ez da horren erraza. Balantzea ona da, dena dela. Jendea etorri da, bai kanpotarrak bai zonaldekoak, eta denak oso kontent atera dira ekitaldietatik. Ekitaldi guztiak ongi atera dira eta jendeak animatu gaitu horrelakoetan jarraitzeko.

■ Laguntzarik izan duzue hau dena antolatzeko?

Normalean izan ohi dugun laguntza bera izan dugu. Partzuergoa eta Garalur garapen agentziaren artean antolatu dugu dena. Dirulaguntzak ere edozein urtetan jasotzen ditugunak izan dira, gehiago ez, Nafarroako Gobernuak eta Garalurrek ematen dituenak. Baina ez batek eta ez besteak ez digute bereziki lagundu jaialdi hauetarako.

■ Defizitik izan da?

Bai, baina zenbatekoa ez dugu oraindik kalkulatu. Gastuetan ez gara sobera pasatu, aurrekontuan geneukana baino pixka bat guttixeago agian. Diru sarrerena bestelakoa izan da, espero genuen jendea etorri ez delako. Jaialdiek harrera ona izan dute, baina pasatu diren arte ez gara konturatu zein zen gure zenbakia. Daukagun biztanleriarekin eta kanpotik etortzen den jendearekin badakigu ezin garela 700 edo 800 lagunetik pasatu ekitaldi bakoitzeko. Hori aurten definitzea lortu dugu eta hortxe mugitu behar dugu. Bestetik, erran behar da gure nahia ez zela dirua lortzea, baizik eta ahalik eta guttien

sos laia

Zugarramurdi, Urdazubi, Malerreka, Baztan eta Bortzirietako eskualdeen dinamizazio eta promozioaz arduratzen da Bertizko Partzuergoa. Nora Eneterreaga Etxepare 24 urteko lesakar bat da. Ekonomia ikasketak egin zituen Iruñean eta urtarilaz geroztik praktikan ari da Partzuergoko kudeatzaile bezala.

Material birziklatuz eginiko arlanen Zabor-Art erakusketa. Luar Na Lubre, Xose Manuel Budiño, Los Petersellers, Carlos Nuñez, El Mecanico del Swing eta Kepa Junkeraren kontzertuak. Bertizko I. Aizkolari Txapelketa. Herri urrunetako artisten Bertze Kulturak izeneko asteburu koloretsua. Bidasoako Film Laburren I. Zinemaldia. Nafarroako Onddo Kofradiaren Aste Mikologikoa. Ekitaldi horiek guztiak osatu dute Bidasoako Jaialdien lehen aldia.

Ekitaldi guztietatik, zinemaldia da aitzina jarraitzeko aukera gehien duena. Hogeita hamar film jaso dituzte aurten, eta heldu den urterako ehunen bat espero dituzte. «Kalitate aldetik nahiko maila altua zuten gehienek», adierazi du Eneterreagak. Proiektu honekin itsu-itsuan segitzeko prest daude, jaialdien umerik kuttunena baita.

inbertituz horrelako eskaintza kultural bat egitea. Publizitatea egiteko beste modu bat da hau. Hortaz, arrakasta lortu dugu jaialdiek oihartzun handia izan dutelako, egunkari eta irrati guztietan eta telebista askotan agertu baikara. Hori pagatzen hasten bazara, defizitaren erdia joaten zaizu.

■ Zein izanen da jaialdien etorkizuna?

Oraindik ez dakigu, baina nik uste dut jarraituko dutela, helburu nagusiak bete direlako,

eragina izan duelako, hedabideetan agertu direlako eta jendeak pixka bat ezagutzen dituelako jaialdiak. Alde horretatik, arrakastatsuak izan dira eta jarraipena izanen dute. Egia da gauzak aldatuko direla. Akatsak ikusi ditugu —ordu, egun edo toki desegokiren bat—, eta konponduko ditugu.

■ Ez duzu uste lehenbiziko aldia izateko gauza aunitz programatu dituzuela?

Beharbada pasatu egin gara. Jendea ezin da denetara joan.

Guretzat ere lan handia da. Egon gara egun aunitz goizeko 9etatik gauko 3ak aldera eta hurrengo egunean berriro. Jarraituko dugu aurtengo kalitate mailari eusten, baina hamar gauza egin beharrean, lau, bost edo sei eginen dira.

■ Jaialdiak uztailaren hasieran abiatu ziren Zabor-Art erakusketarekin, eta igandean bukatuko dira aste mikologikoaren amaierarekin. Ez da denbora gehiegi?

Gauza aunitz zeudelakoz gertatu da hori. Abuztua da horrelako gauzak egiteko hilik onena, baina arazo handiak ditugu egunak jartzeko. Hogeita hamar daude, hogeita hamar baino gehiago, eta hasten zara bestak honat eta bestak harat eta ez dago modurik egun libreak hartzeko. Agian era homogeneoago batean egin beharko genuke eta egun bakarra hartu, ostiralak adibidez, kontzertuak egiteko. Gero, beste arazo bat dugu. Zona hau oso zabala da eta batzuetan lehia sortzen da batzuen eta besteen artean. Partzuergo bezala salatu behar dugu denek ematen, denek eskatzen baitute. Badakigu gauzak antolatzeko eta dirua gastatzeko orduan okerragoa dela, baina horrelaxe egin behar dugu.

→ Asier Azpilikueta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Begira.. Partxisean aritzeko programa hau pasatu didate eta Interneten jolasten ari naiz polita ..ezta?



Fitxekin buelta guztia eman eta gero hor goian sartu behar dituzu eta horrela irabazten duzu... beno, ikusten duzunez, oraingo hontan nik galdu dut. Orain partida komentatuko dugul!



Nafar Kronika

Pello Goñi

Periodikoa leitzen

«**H** ILOTZA GARRAIATZEN DUTEN arimak besterik ez gara», pentsatu du jubilatutako zaharrek, txapela buruan eta asteleheneko *Diario*-a eskuen artean, Gaztelu Plazako aulki batean jarrita dagoela, goizeko argi-errainuek haren aurpegi zimurtua berotzen duten bitartean. Begiak letrez beteriko orrietan finkaturik ditu, baina ez da arreta handiz irakurtzen ari, barreneko bakarrikzeta batean murgildurik dago-eta. Albisteak mordoka pilatzen zaizkio buruan irudi bilakaturik: Espainiako Itzulia, su-etenaren inguruko hitz-sorta, Osasunaren garaipena, Alemaniako hauteskundeak, Sanzek zezenetan bizi izandako estualdia, Munduko ekonomia-aren laberintoa... «Handitasun hutsaleko desfilea, antzezpenak, artaldeak, txakurrei botatako hezurak, sagutxo ikaratuen lasterketak, zama astuna daramaten inaurrien lanak, hariez mugitutako txotxongiloak».

Jubilatu zaharrek begiak jaso ditu, irakurtzeari utzirik. «Mundu honetako jende gehiegik irabazle nahi du izan, jende gehiegi ospearean morroi bihurtu da, ohartu gabe hilotza garraiatzen duten arimak besterik ez gara, ohartu gabe gu hil eta gero gogoan edukiko gaituztenak ere laister hilko direla, euren ondorengoak bezalaxe», pentsatu du. Jubilatutako ez daki inondik ere jakitun zaharrek gogoeta berberak egin zituztela orain dela bi mila urte inguru. Ez da harritzekoa. Izan ere, orainaldikoa ikusi duena dena ikusi du: lehenaldi zehaztugabea izandu zena eta etorkizun amaiezinean izanen dena, orok jatorri berbera, orok itxura berbera baitu (Marco Aurelio Antoninoren gogoetak).

gure aukerak

KONTZERTUAK

- Mendillorri: De 2 en Blues Band eta Sindrome del Norte taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, 23:00etan.
- Ibiriku: Skalariai taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 23:00etan, plazan.

ZINEMA

- Tafalla: Datorren asteartean eta ostegunean *La cortina de humo* izeburuko pelikula eskainiko da Cinema Españolen 20:00etan eta 10:30etan.

ANTZERKIA

- Atarrabia Tirri Tarra taldeak *Tirri Tarra* sowa ikuskizuna eskainiko du gaur, Udal plazan, 20:00etan.
- Tafalla Tutik ere clowns taldeak *Pan hasteko eta pan bukatzeko* lana taularatuko du datorren asteazkenean, 18:00etan, Kultur Etxean.

IKASTAROAK

- Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak helduentzako zein haurrentzako ikastaroak antolatu ditu 1988-99 ikasturtean. Haurrek joko dramatiko eta antzerki tekniken hastapenak ikasteko aukera izanen dute. Matrikulazio epea urriaren 15ean bukatuko da. Informazio gehiago nahi duenak 22-92-39 telefonora deitu behar du edo eskolak dituen bulegoetara jo dezake: San Agustin kalea, 5.
- Iruñea: Andreak, emakumearen harrerarako zentroak, honako ikastaroak antolatu ditu datorren ikasturterako: autoestimua, giza gaitasunak, norberaren handitzea, ingelesa, yoga, kiromasajea, makilaje kreatzailea eta etxeko lanak. Informazio gehiago 948-133310 telefonon.

BESTELAKOAK

- Murillo el Fruto: Erdi Aroko merkatu ibiltarietatik azkena egingen da bihar herrian. Merkatua 11:00etan zabalduko da. Ondoko orduetan hainbat ekitaldi izanen dira. Besteak beste, egingen dira: hiru behien zerga eta ardi zakur-rren erakusketa.
- Agoitz: Bilaketa kultur taldeak Agoitz herria nazioarte-

ko eskultura lehiaketarako oinarriak ezagutarazi ditu. Lanak ez ditu neurriok gainditu beharko: 50x50x100 eta 20 kiloko pisua. Obrak urriaren 8a arte eraman daitezke ondoko helbidera: Francisco Indurain kalea, 12, Agoitz (Nafarroa). Informazio gehiago nahi izanez gero: 948-33-65-98 telefonora deitu.

- Mendillorri: IKAKo Mendi-tpi euskaltegirako matriku-

la epea urriaren 6a arte dago zabalik. Informazioarako, deitu 948 162439 telefonora.

- Barañain: Juana Azkarate psikologoak 50 urtez goitiko aisialdia betetzea hitzaldia eskainiko du asteartean, 19:30etan, Kultur Etxean.

- Iruñea: Nafarroako Kirol Elkartek Goñi, Beriain eta Unanu mendien arteko zeharkaldia antolatu du etzira ko.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

"Tente bolente, barrika de aguardiente. Kopatxo bat baneuka, gustora edango nuke".

AMAMA MARIA

Mundu honetan ez dauden munduko amama guztiei